








Denbora.

1 Puzzlea


Eñauten anaia txikiari izugarri gustatzen zaizkio puzzleak. Eñautek mahaiaren gainean amaitu zuen puzzleari piezak kentzen hasi da. Orain, puzzlea osatzeko, pieza bat falta da.

Zein da falta dena?





2 Itzalak

Aitaren kutxatik hainbat lan tresna atera ditu Txominek. Itzal hauei begiratzen badiezu, asmatuko al zenuke zein diren kutxatik ateratako tresnak?



3 Kopiatu koadroz koadro

Elenaren txoriari luma bat erori zaio. Alboko laukietan luma berbera marrazteko gai izango al zinateke?




Erantzunak: 1.- (a). 2.- Bihurkin, giltza zabalgarri, alikerak eta mailua. 4.- Surfeko ohola. 5.- (d)

-pasa

4 Margotu eta asmatu


Lauki bakoitza zehaztutako kolorearekin margotzen baduzu, ezkutuan gordeta dagoen irudia ikusi ahal izango duzu. **Zer dago ezkutuan?**

1. Gorria 2. Horia 3. Orlegia 4. Urdina



5 Itzalak


Julen deabruz mozorrotu zeneko sardea da hau. Arretaz begiratzen baduzu, sardearen itxura bera duen itzala topatuko duzu. **Ohartzen zara zein itzal dagokion?**



jolasa

Ama

Leku askorik behar ez duen joko. Joko erraza, eta une atsegin bat igarotzeko oso josta garria. Ez arretarik galdu, eta segi amari!



1 Ama lanak beteko dituen jokalaria bat aukeratzen da. Ama izango den jokalaria ilararen hasieran jartzen da, eta gainerako guztiak bere atzean ezarriko dira ilaran.

2 Ama oinez ibiltzen hasiko da, eta gainerako guztiak bere atzetik joango dira. Atzetik doazen jokalariek amak egindako keinu berak egin, eta amak egindako ibilbidea jarraitu beharko dute.

3 Ibilbidean zehar ama saltoka edo korrika hasiko da, makurtu egingo da, txaloak egingo ditu, besoak zabalduko ditu... Aldi berean, leku ezberdinetatik igaroko da atzetik doazen jokalarien arreta galdu nahian.

4 Denbora batera, bere postua beste jokalaria bati emango dio, eta ama lanetan aritu dena ilararen atzean kokatuko da. Ama aukeratu berriak izango du orain hitza.